



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

EKONOMIAREN ETA LURRALDEAREN GARAPENERAKO BATZORDEA

Barikua, 2019/01/11

Bizkaiko Batzar Nagusiek 2032 arteko Bizkaiko errepide planerako jarraibideak jasoten dituan agiria onetsi dabe

Bizkaiko Batzar Nagusietako Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Batzordeak, Bizkaiko errepideen Lurralde Plan Sektorialak (LPS-PTS) jaso behar dituan jarraibideak batzen dituan agiria onetsi dabe gaur. Agiriari, Batzarretako taldeek egindako ekarpenak gehitu jakoz. Imanol Pradales Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Foru Diputatuak eskertu egin dau talde politikoei proiektuan “euki daben partaidetzea”, horrek “Foru Aldundiaren hasierako proiektua hobetzen” lagundu dauelako.

Agiria EAJ-PNV, PSE eta Talde Mistoaren aldeko botoakaz, EH Bilduren eta PPrent abstentzinoakaz eta Podemos Bizkaiaren kontrako botoakaz onetsi da. Agiriak, batzorde horretan helburu horregaz sortu dan lan taldeak aurrera eroandako beharrak laburbiltzen ditu. Taldeak ekarpenak egin deutsaz 2032ra arte probintziako errepideetarako Foru Erakundeak prestau eban planari.

Talde politikoei euren botoak azaltzeko euki dituen argumentuei jagokenez, danak bat etorri dira Bizkaiko probintziarako oso dokumentu garrantzitsua dala esatean. EAJ-PNV taldeak, Irene Edesa bozeroaleak talde politiko batzuekaz lortutako akordioak eta talde horreek akordioak lortzeko erakutsi daben jarrerea” azpimarratu ditu.

PSE taldeak, Josu Moltalbanen bitartez, “errepideetarako tresna eguneratua, dokumentu bizia eta hobetzen jarraitzeko zabalik dagona, eta partaidetzan oinarritutako lan egiteko moduari emondako erantzuna” eukitea oso garrantzitsua dala adierazo dau.

Talde Mistoko Arturo Aldecoak, “behar egin ahal izateko oinarri sendoa” dala adierazo dau, eta “lurraldeko mobikortasunak aurrera egin ahala” hori aldatzeko aukera dagola. Ez ditu ahaztu kanpoan geratu diran neurriak, eta etorkizunerako baliagarriak izan daitekezala esan dau.

Agiriaren kontrako botoa emon dauen talde bakarra izan dan Podemos Bizkaia taldeak, Neskutz Rodríguezen bitartez, kontrako boto hori azaldu dau, esanez kontraesankorra dala agiri berean mobikortasun jasangarria eta garraio publikoa bultzatzea, Errekaldeko bide-zubiari benetako bultzadea ez emotea, eta ibilgailu pribadua sustatzen daben beste azpiegitura batzuk, barriz, bultzatzea.

Zigor Isuskiza EH Bilduko bozeroaleak azaldu dauenez, beharrezkoa da herritarren partaidetzea kontuan hartzea, eta foru arauaren prozedurak hori kontuan hartu behar dau. Azpimarratu dauenez, “Errekaldeko Saihesbideak lehentasuna euki beharko leuke azpiegituren artean”, eta “bidesarien ganeko gogoetea zabaltzearen” aldeko bere ekimena gogoratuazo dau, azkenean agirian sartu ez dan arren.

Jesús Isasik (PP) azpimarratu dauenez, “orain beharrezkoa da agiri hori zuzenduko dauen foru arautegia azkartzea”. Dana dala, bere berbetan, “ez dau emoten egokia danik LPS-PTS denpora gitxi barru egin behar diran hauteskunde batzuen menpe egotea”, eta bere eretxiz, “derrigorrezkoa” da Bizkaiko mobikortasunaren ganeko azterlana LPS-PTSan sartzea.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

COMISIÓN DE DESARROLLO ECONÓMICO Y TERRITORIAL

Viernes, 11/01/2019

Las Juntas Generales de Bizkaia aprueban el documento con las directrices para el plan de carreteras de Bizkaia hasta 2032

La Comisión de Desarrollo Económico y Territorial de las Juntas Generales de Bizkaia aprobaron hoy el documento con las directrices que debe contener el Plan Territorial Sectorial de Carreteras de Bizkaia (PTS). Al documento se le han añadido las aportaciones realizadas por los distintos grupos políticos de la cámara provincial. El Diputado Foral de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, ha agradecido a los grupos políticos su participación en el proyecto” y que ha servido “para mejorar el proyecto inicial de la Diputación Foral”.

El documento se ha aprobado con los votos favorables de PNV, PSE y Grupo Mixto, las abstenciones de EH Bildu y PP y los votos en contra de Podemos Bizkaia. El documento resume las labores llevadas a cabo por el grupo de trabajo creado para tal fin en dicha comisión, para realizar las aportaciones al plan elaborado por el Ejecutivo Foral para las carreteras de la provincia hasta el año 2032.

En relación a los argumentos de los grupos políticos para explicar sus votos, todos han coincidido en que se trata de un documento de gran importancia para la provincia de Bizkaia. El PNV, en palabras de su portavoz Irene Edesa, ha destacado los acuerdos llegados con algunos grupos políticos y la predisposición de esos grupos para poder llegar a esos acuerdos”, ha destacado Irene Edesa.

El PSE, a través de Josu Moltalban, consideró importante disponer “de un instrumento para las carreteras actualizado, un documento vivo y abierto a seguir mejorando y una respuesta a un modelo de trabajo participativo”.

El Grupo Mixto, con Arturo Aldekoa, manifestó que es “una base sólida para poder trabajar” y que puede editarse “según vaya evolucionando la movilidad del territorio”. No ha olvidado las medidas que se han quedado fuera y las ha recordado argumentando que pueden ser válidas en un futuro.

Podemos Bizkaia, a través de Neskutz Rodríguez, único partido en votar en contra del documento, ha explicado su voto contrario por la contradicción que incluye el documento sobre potenciar la movilidad sostenible y el transporte público y la falta de

apoyo efectivo al viaducto de Rekalde y el apoyo a otras infraestructuras que fomentan el vehículo privado.

En Bildu, su portavoz en la comisión, Zigor Isuskiza, explicó que la participación de la ciudadanía también debe considerarse y que el procedimiento de la norma foral debe tenerlo también en cuenta. Destaca que la “Variante de Rekalde debería ser una prioridad entre las infraestructuras” y también ha querido recordar su iniciativa a “abrir una reflexión sobre los peajes” y que al final no ha sido incluido en el documento.

Jesús Isasi (PP) recalcó que “ahora es necesario agilizar la normativa foral que va a regir este documento”. No obstante, también ha explicado que “no parece adecuado que el PTS pueda estar pendiente de unas elecciones a corto plazo” y considera “fundamental” incluir en el PTS el estudio de la movilidad en Bizkaia.